

Bizkaia

Barakaldo

Erdigunea Casco urbano

**ELIKAGAI-AZOKA
MERCADO DE ABASTOS**



Elikagai-azoka Barakaldoko hirigunearen erdian dago, eta Ismael Gorostiza udal-arkitektoak egina da. 1931n eraikia, oro har kalitatezko elementu arkitektonikorik ez daukan hiriguneari nortasuna ematen dio.

Barakaldo 1920ko hamarkadan udalerriko goiko alde-rantz hazten ari zen. Hori ikusirik, Udalak hirigunearen erdian, Foruen plazaren ondoan, elikagai-azoka berri bat egitea erabaki zuen, El Desierto merkatu zaharrak ez baitzituen auzo berriek zituzten beharrak, gero eta handiagoak, asetzen. Beraz, Barakaldoko mendixkaren gaina urbanizatu zutenean, elikagai-azoka lekuz aldatu zuten.

Merkatu berriaren eraikinaren egitura hormigoi armatuz egin zuten, solairutan antolatuta, horma zeharrargiekin eta argizulo zenital batekin. Ezaugarri horiei esker, barrualdea, salmenta-postuak eta, oro har, hiru solairuak bikain argiztatuta eta aireztatuta daude. Kanpoaldetik, nabarmentzekoa da fatxaden kromatismoa, adreilu, azuleju eta distira metalikoen konbinazioaren emaitza.

Eraikina orainsu zaharberritu dute, eta merkatuari dagozkion erabilerei beste aisia-jarduera batzuk gehitu dizkio; hala ere, espazio honek ez ditu barrualdeko ezaugarririk onenak galdu. Monumentu izendatu dute 2012an.

El mercado de abastos es un edificio ubicado en el centro del casco urbano de Barakaldo, obra del arquitecto municipal Ismael Gorostiza. Construido en 1931, otorga carácter a una trama urbana desprovista, en general, de elementos arquitectónicos de calidad.

En los años veinte del pasado siglo, el crecimiento de Barakaldo hacia la parte alta del municipio decidió al Ayuntamiento a edificar una nueva plaza de mercado en el centro del casco urbano, junto a la Plaza de los Fueros, toda vez que el viejo mercado de El Desierto no solucionaba ya las necesidades que los nuevos barrios iban adquiriendo. La colonización residencial de la cima de la colina de Barakaldo motivó el traslado del mercado de abastos a este emplazamiento.

El edificio del mercado se construye con obra de hormigón armado, con organización funcional por plantas, muros traslúcidos y lucernario cenital que garantizan una excelente iluminación del interior y los puestos. Así, la estructura de hormigón armado permite una mejor iluminación y ventilación de sus tres pisos. Exteriormente, las fachadas destacan por su cromatismo, resultado de la combinación de ladrillo, azulejo y reflejos metálicos.

Recientemente el mercado ha sido sometido a un proceso de restauración, ampliando sus usos de mercado a otras actividades de ocio, sin que haya perdido las mejores cualidades espaciales de su ámbito interior. Ha sido declarado monumento en 2012.